BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4136

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 28koa, Garraioetako zuzendariarena, salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2010eko uztailaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena.

Diru-laguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publizitate-printzipioa betetzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Aginduak 9.3 artikuluan xedatzen duenez, diru-laguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Autonomia Erkidegoko salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzak, Garraioetako zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera, zeini eman zaien argitara ematea. Onuradunen zerrenda ebazpen honekin batera doa, eranskin gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 28a.

Garraioetako zuzendaria,
MIKEL DÍEZ SARASOLA.

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak.

Onuraduna	Diru-laguntza (€)
Transportes Argatxa SA	13.000,00
Tudefrigo SL	83.059,83
Ozanai SL	4.875,00
Sacytrans SL	3.154,13
Inai Logística SL	69.393,85